

Neuk be ez daukat hau irakurteko astirik

“**Bizitza arin doa arineketan goazanean**”, abesten eban Kortatuk. Izan be, aro modernoko uneren batean, **denporak bizitzaren aurka egitea erabagi eban**; eta denporaren aurka burukatzen hasi ginan edo, hobeto esanda, denporaren, ordutegiaren eta erritmoen morroi bihurtu ginan. Gaur, denporak ihes egiten deusku, sekula ez da nahiko eta **denpora irabazteko sekulako lehiara bultzatzen gaitu**. Denporari denpora irabaztea, loari, atsedinari, gozatzeari, beste norbaiti... denpora irabaztea da.

Bizitzako eremu guztietan ezarri da errendimendua gehitzeko agindua. Alde guztietatik optimizatu, konparatu eta ebaluatu egiten da une bakotxari ahalik eta probetxurik handiena atarateko (Friedrich, 2018).

Gizon eta emakumeen denpora lanerako, ekoi-zpenerako eta kontsumorako izatea da dinamika kapitalisten helburua. Eta ez hori bakarrik, **errendimenduaren eraldia horrek, arrakasta, egonkortasuna eta etorkizuna bakotxaren esku eta menpe baino ez dagozala aginduz**, gizon-emakumeari aske izatea dakartzola sinistarazo deusku. Eta guzti hau, **“You can do it”** arauan oinarrituta. Honek zera ziurtatzen deusku: zeure buruari proposatzen deusazun guztia egin daikezula, muga barik, zeure ekoizpena maximizatuz zeure ongizatea eta osotasun pertsonala lortzeko ahaleginarekin.

Geure buruaren enpresari, geure buruaren morroi, geure buruaren esplotazioaren eragile bihurtu gaituan **denporaren, segurtasunaren eta aberastasunaren arteko lotura barria iragarri jaku**. Errendimenduaren eragileak bere burua behartzen dau, bere buruagaz gerran da eta libre sentitzen bada be, **“kateatuta dago behartutako askatasunaren edo bere errendimendua maximizatzeke obligazino askearen aurrean”** (Han, 2012).

Geure buruaren ekintzaile gara, geure burua sustatzen, geure burua prestatzen, emoten dogu denpora, dana egin daikegula oinarritzat hartuta, beste norbait, hobe izateko nahiak erakarrita, gure ustezko askatasuna konta ezin ahalako betebeharrez betez. **Zenbat eta gehiago baloratu “lanpetuta egotearen” sentsazioa gauza positibo lez, orduan eta beharrezkoagoa da denpora (erabat) beteteko beharizana** (Moruno, 2017).



Pawel Joncaren irudia



Berat Pekmezciaren irudia

Merkatuak ebatzi dauanez, ekoiztera zuzentzen ez dan denpora, alperrik **galdutako denpora** da. Denpora galtzeko beldur gara, etenbako arreta-guneak sortzen saiatzen gara, **berehalako denpora** erabat beteteko asmoz. Dana bizkor batean zaharkitu bihurtzen dauan berehalakotasun horrek denporaren jabetza kendu egiten deusku, beti barriari begira egotera kondenatuz. **Gure denpora merkataritza-gai bihurtzen dala** ikusten dogu beste behin be, **etenbako kontsumora bultzatzen gaituala** eta larritasun iraunkorrez bizitzera gerozala. Hainbat gauza aldi berean egitera behartzen gaituan **hiperraretaren larritasuna**, makina bat informazio-iturri eta estimulutatik jasotako gehiegizko informazioak sustatuta.

Errendimenduaren presino honek **akidura eta izugarritzko nekea sortzen dau**, akitutako eta gogaitutako jente-andana itziz atzean, mendebaldeko gizarteetan ohiko bihurtu diran gaixotasunak argitara ekarriz: **larritasuna, hiperaktibitatea, depre-**

sinoa..., nork bere buruari agindutako (ahal izan behar dot) ekoizpen-estandarretara iristeko gauza ez izateak eragindako gitxiagotasun-sentimentuen eta **porrot egiteko bildurraren emaitza**. Errendimentuaren gizarte honetan agertzen diran bizitzetan, **estresa, bakardadea, atomizazioa eta akidura dira nagusi**. Eta guzti hori **aurrez aurre jarritako 'egoak'** bizi diran munduaren indibidualismoan oinarritzen da. Bestearen denporaren erosketa eta erabileraren araberako hartu-emonak dituan gizarte egitura sortzen dogu, beraz, **behin-behinekotasun, desbardintasun eta pobretasunezko dinamikak eraginez**. Eta hor, norbere denporak bestearen denporak baino gehiago balio behar dau eta beste horri ordaindu egiten jako norbera ohiko eta etekinik bako egitekoetatik askatu ahal izateko.

Ordaindutako lana, lan emonkorra, burujabetza irabazten laguntzen dauan **menpetasun lez goratzen da**. Eguneroko bizitzak, zainketek, kapitalaren aldeko aberastasuna eta hazkundera sortzea helburutzat ez dauan denpora eska tzen dabe eta, ondorioz, jarduera antzuak dira, **ez-emonkorrak**. Beraz, egiteko horretan jarduten dabenak menpekoak dira. Gizarte kapitalistak merkantziatzat hartutako denporaren interdependentzia sortzen dau eta horregaitik gatazkak sortzen dira bere banaketa-gaitik eta denporaren kontrol botereagaitik.

Zer egin daikegu? Hausnartzeko...

“Edozein iraultza, aldatzeko helburu guztiak, gauzatu daitezkan, berrantolatatu egin behar da denporaren banaketa eta sena; kapitalaren kontagailuari esanik egiten ez deutsan tentsino zarpiki eta hezigaitza da”(Moruno, 2018). Feminismoa eta ekologismoa aurkezten dira gure aberastasun-kontzeptuari osoko kritika egiteko ikuspuntu lez; jadestea lehenesten dabez. Neoliberalismoak gizarte sarea zirpildu egiten dau, ekoizpen eta errendimentu-egoa (Nik ahal dot) sustatuz. Bestea askatu behar dogu, bestearen beharra izan behar dogu (ahal ez izateko aukera), taldean eta alkarlanean oinarritutako ekintza eta ekonomiak .

Zera hausnartu daikegu: ia hasiera batean kapitalismoaren logiketarik banantzen diran jarduerak (sozialak, pastoralak...) ekoizpen eta errendimentu-dinamika honeetara zabaltzen diran; eta, azkenean, erritmo eta estilo bardinez baliatzen diran eta, azken batean, egoak sustatzen dabezkan euren buruak arrakastatsutzat joteko.

Baliabideak

MORUNO DANZI, J. (2018) *No tengo tiempo. Geografía de la precariedad.*

HAN, B. (2012) *La sociedad del cansancio.*

FRIEDRICH, S. (2018) *La sociedad del rendimiento. Cómo el neoliberalismo impregna nuestras vidas*

Pelikula: “The Straight Story”- David Lynch



Sy Tatren irudia

Denporaren ikuskera honek benetan eragina ete dau garatzen doguzan egitekoen kalidadean, motibazioan eta osasunean? Pentsamentu indibidualista ete da zurrumbilo horretan irautearen eragilea? Gertuko pertsonen erritmoak dirala-eta, kaltetuta edota bazteruta sentitzen gara?

Dagoeneko, askotan, ez gara isiltasunaz, aukeratutako bakardadeaz edo beste batzukaz alkarteaz gozatzeko gauza. Galdu egin dogu begiespenerako gaitasuna eta aspertzearen doea. **“Kontenplazinozko bizitza edozein hiperaktibitate baino eraginkorragoa da; kontenplazino bako jarduera jarraituak dagoana luzatu baino ez dau egiten. Nietzscheren esanetan: “Ekintzaileei normalean goragoko jarduera falta jake, horretan, alperrak dira. Ekintzaileak, harriaren antzera jira-biran dabilz, burugabekeria mekanikoaren arabera”** (Han,2018). Denpora barik ezin dozu erabagi, erabagi barik ezin dozu denporarik galdu.

Noiz galdu zenduan azkenekoz denpora zure egitasmoen gainetik norbait lehenesteko? Zentzat bider esaten dozuz, “ezin naz heldu”, “gehiago ezin dot”, “topera noa” eta antzeko esaldiak eta zeri erantzuteko? Noiz aspertu zinan nahita azkenekoz?